


GABONAK ETA KONTSUMOA

GOMENDIOAK

Urrezko araua:

ezer erosi baino lehenago, zure buruari egin behar diozun galdera sorta gogoan izan:

- Benetan behar al dut?
- Horrelako zenbat dauzkat dagoneko?
- Askotan erabiliko al dut?
- Zenbat iraungo dit?
- Lehengai berriztagarriak erabili al dira hau ekoizteko?
- Material birziklatuz egindako antzekorik ba al dago?
- Birzikla al daiteke?
- Non egina dago eta zein lan baldintza dituzte langileek?
- Hondakin asko sortzen al da bere ekoizpenean?



1 Erosketak garaiz egin eta ez utzi azkeneko unerako: alde batetik, prezioen igoera nabarmena izaten delako eta, bestetik, bat bateko erosketaren arriskua ekiditeko.

2 Opariak egiterakoan, aldez aurretik diru kopurua finkatu, neurririk gabeko erosketak baztertzeko.

3 Jai egunetako otordu berezietarako behar dituzun jakiak eta gutziak kongelatzeko aukera duzu prezio ez hain garestian daudenean. Ez ahaztu aukerarik egokiena bertako edota gertuko produktuena dela, garraio arazoak zein gastuak gutxitzen dituztelako.

4 Gabonetako erosketetan bazter itzazu gehiegizko bilgarriak eta orokorrean, aukera itzazu zabor gutxien ekoiztuko duten produktuak.

5 Energia behar duten gailuak (tresna elektriko txikiak, jostailuak, argazki kamerak...) erosterakoan, berriz kargatzen den bateria dutenak hartu, pilak kutsakorrak izateaz gain, kontsumoa modu handian areagotzen baitute.

6 Bidezko merkataritzako produktuak geroz eta hedatuago daude. Ekoizlearen eta eroslearen arteko bitartekariak murrizten direnez, lehenengoek diru irabazi duinagoak izaten dituzte.

7 Jostailu garestiena ez da jolasteko hoberena. Askotan, gure seme-alabek nahiago dute gurekin egon, beste haurrekin jolastu...

8 Oporretan kanpora bazoaz, kontuan hartu ondorengoak: galdetu zeure buruari ea benetan oso urruti joatea beharrezkoa duzun; eredu eramangarriagoak badaudela kontuan hartu (nekazaritza-turismoa, turismoa bizikletaz, senderismoa...); leku bakoitzeko natura, kultura eta bertako eskubideak errespeta itzazu; eta ahalik eta gutxien kutsatzen duen garraio mota erabili.

TOLOSAKO  UDALA

Tolosa Ingurumen Eskola

TOLOSA2015 